

Emakume marokoa Europa doan migrazio-fluxuaren bektore ekonomiko eta sozial gisa, Marokoko Familia Kodearen aplikaezintasun praktikoaren aurrean

Nagore Enbeita Izagirre
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, Elcano Sekzioa (UPV-EHU)

Artikulu honen helburua da gogoeta demokratiko eta ireki batetik emakumearen egoera aztertzea Marokoko Familia Kodearen erreformaren aurrean. Kontuan izan behar da, praktikan, estereotipo sexistek eta Marokoko gizarte-egituren hauskortasunak hainbat oztopo eta zailtasun ekarri dituztela erreforma hori aplikatzean. Hori dela eta, emakume marokoa Europa doan migrazio-fluxuaren bektore ekonomiko eta sozial nagusia bihurtu da. Ezinbestekoa da aipatzea migrazio horrek kulturen arteko elkarbizitza dakarrela halaberrez, bi zutabetan oinarrituz: giza eskubideen arloan gutxieneko komun bat onartzea, eta aniztasuna errespetatzea eta integratzea.

GAKO-HITZAK: Emakume marokoa · Marokoko Familia Kodea · Migrazio-fluxua · Bektore ekonomiko eta soziala · Integrazioa.

Moroccan women, the main economic and social vector of the migration flow to Europe due to the reform of the Moroccan Family Code

The objective of this article, from a democratic and open reflection, is to analyze the situation of women before the reform of the Moroccan family code. It must be taken into account that, in practice, sexist stereotypes and the fragility of Moroccan social structures have created a series of obstacles that make it difficult to implement all these reforms. For this reason, Moroccan women have become the main economic and social vector of the migratory flow to Europe. It is essential to point out that this migration supposes an intercultural coexistence based on two pillars: the acceptance of a common minimum in the matter of human rights, and the respect and integration of diversity.

KEY WORDS: Moroccan women · Moroccan family code · Migration flow · Multicultural society · Economic and social vector · Integration.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.120.2022.1>

Jasotze-data: 2021-03-22 *Onartze-data:* 2021-06-02

1. Sarrera

Nahiz eta Marokoko Familia Kodeak emakumearen eskubideak bermatu, praktikan oso lan zaila izan da horren aplikazioa, estereotipo sexisten eta gizarte-egituren hauskortasunaren eragina dela eta. Horregatik, emakume marokoarra, erabat behartuta, Europara doan migrazio-fluxuaren protagonista bihurtu da, sektore ekonomiko eta sozial nagusia izanik.

Marokon emakumeak bizi duen egoera dela eta, gero eta gehiago dira migrazio-fluxuetako protagonistak. Horiek senarraren migrazio-proiektuarekin bat egitetik, duela ez asko arte ohikoa izan zen bezala, haren funtsezko pieza izatera igaro dira. Emakume marokoarra Europara iristen denean, ezartzen dituen harreman sozialak, neurri handi batean, bere familia- eta lan-egoeraren arabera izango dira.

Migrazio-prozesuak zenbait eraldaketa dakartza familia-eremuan, eta eraldaketa horiek hertsiki lotuta egon dira emakume marokoarrak migrazioaren ondoren lortzen duen autonomia ekonomikoaren mailarekin, kultura-talka ukaezinarekin eta ezkontideen rolen aldaketa garrantzitsuekin. Emakumeek nazioarteko migrazio-mugimenduetan duten parte-hartzea oharkabean igaro da denbora luzez. Emakumeak, Marga Roig egileak nabarmentzen duenez, migratzaile ikusezinak edo gardenak ziren (Roig, 1999).

Baina benetan gertatzen dena zera da, kultura arabiarraren eta mendebaldekoaren artean, gizarte modernoaren eta tradizionalaren artean ulertzen zaila dirudien talka batean duten protagonismoa. Zentzu horretan, etorkin marokoarrek praktikan ez dute inolako talka kulturalik pairatzen, eta ez dute beren bi munduak bereizten dituen muga zurrunik aurkitzen. Halaber, aldaketaren benetako protagonistak dira, migrazio-esperientziarekin lortzen ari diren identitate berriaren terminoak nolabait negoziatuz. Horregatik, eta gizarte multikultural bat ezinbestean dakarren migrazio-egoera horren aurrean, estatuak behartuta daude, oinarritzko eskubideak babesteko, migratzaileen nortasunari dagozkion jardunbideak gauzatzeak dakartzan arazo juridikoez arduratzera. Artikulu honek Maroko du ardatz, herrialde islamiarren adibiderik mendebaldekoena delako, emakumeak gizartearen eta kulturaren modernizazioan duen eraginagatik eta, bereziki, emakume marokoarra Europara doan migrazio-fluxuaren sektore ekonomiko eta sozial nagusia bihurtu delako.

Integrazioak elkarrekin bizitzea, desberdintasuna onartzea, errespetatzea dakar, bai, baina bizi zaren eta hartzen zaituen gizartera egokitzeko elkarrekiko ahalegina ere eskatzen du. Nazioen nortasuna indartsuagoa da, integratzaileagoa eta barneko ezberdintasunekiko errespetuzkoagoa izatearen alde egiten duen heinean; izan ere, nazio zibiko batek bere indarra nortasunaren ikuskera inklusiboan oinarritu behar du (Aldecoa, 2000). Eta horrek esan nahi du zenbait praktika, hala nola poligamia, gaitzespena, ablazioa, emakumearen diskriminazio moduak edo ezkontzak ezartzea, ez direla onargarriak oinarritzko eskubideak babesteko ikuspegitik. Eta giza eskubideez ari garenean, ez dago eskubide horien «mendebaldartze»rik ezta gure zibilizazioaren balioen ustezko nagusitasunik ere: giza eskubideek berdinak izan behar dute Kabulen edo Berlinen, Damaskon eta Erroman.

Marokoko emakumearen errealitatea zehazten duen analisi deskribatzaile bat egiten da, Marokoko Familia Kodearen erreformatik hasita, horren oztopo praktikoak analizatuz, baita horrekin erlazio zuzena duen emakume marokoarraren Europarako migrazioa ere. Horretarako, erabilitako metodologia material asko eta askotarikoa biltzea izan da, hau da, nazioarteko zuzenbide pribatuarekin lotutako testu zientifikoak, testu erlijiosoak, doktorego-tesiak, txostenak, inpaktu handiko aldizkarietako artikulua, estatistikak, webguneak, kongresuetako aktak, baita datu-baseak ere, hala nola WOS, Scopus, PROQUEST, Aranzadiren datu-basea; online aldizkariak: CdT, REEI, AEDIPR, Redi, In dret, Millenium-Bitácora Derecho Internacional Privado, Conflicts legum, etab. Eta material horrekin guztiarekin lehen aipatu dugun azterketa egin da, ezarritako helburuetara heltzeko.

2. Emakume marokoarra bektore ekonomiko eta sozial gisa Europarako migrazioan

Zergatik zentratu artikulua hau mundu islamiarraren barruan Marokon, konkretuki? Horren arrazoia da Marokoko gizartean duela gutxi izandako aldaketa sozial eta politikoek emakumea izan dutela protagonista nagusi. Marokoren kasua deigarria da, bai Magreben bai herrialde musulmanen artean. Zentzu horretan, emakumearen mugimendua aurrera doa Alai Erresuman, eta oharkabean igaro ezin diren emaitzak lortzen ari da, eta horrek guztiak garrantzi politiko eta soziologiko handia du. Era berean, Marokoko islamismoa berezia da, Magreben eta mundu islamiarrean dauden gainerako mugimendu islamisten aldean desberdina baita. Horrek zerikusia du herrialde horretako testuinguru erlijioso, sozial, ekonomiko eta politikoarekin.

Emakumeari dagokionez, lehenik eta behin azpimarratu behar da generoa ez dela gizarte-errealitatearen azterketa islamistaren oinarritzko parametroa. Zentzu horretan, ikusten da Marokon irekita dagoela emakumeen modernitatera eta emantzipaziora doan prozesu bat, eta fenomeno horiek agerian geratzen dira enpleguaren eta prestakuntzaren arloko lorpen esanguratsuekin.

Bi elementu horiek emakumearengan rol sozial berriak gauzatzen laguntzen dute, eta, pixkanaka-pixkanaka, emakumeak etxeko lanei eta familiaren zerbitzuari bakarrik atxikitzea gainditzen du. Aldaketaren protagonistak erresistentzia kultural handia jasaten ari dira, eta hori areagotu egiten da ordaindutako lanaren munduan, Marokoko gizarteak gizonari esleitutako eremuan. Haatik, nahiz eta emakumeak zailtasunak izan dituen bere parte-hartze laboral, sozial eta politikoa sendotzeko, aldaketaren ondorioak oso nabariak dira.


Horregatik, Europak immigrazio indartsuari aurre egin behar dio. Hau da, beste kultura eta tradizio batzuetako pertsona asko miseria horretatik ihes egiten saiatzen dira, beren begien aurrean ongizate-gizarte gisa agertzen diren herrialdeetara emigratuz, hala nola Espainiara; zeina tradizionalki emigratzailea izandako herrialdea den arren, azken hamarkadetan estatu hartzaile bihurtu baita, Europako erdialdeko eta iparraldeko beste estatu batzuetan gertatutakoaren arrastoei jarraituz.

Elkarte feministen ideologian emakumea da azterketaren erdigunea eta haien jardunaren helburu nagusia, batez ere Marokon; izan ere, haien mugimendu feminista gehienbat parametro laikoan eta Europako eta, zehatzago esanda,

Frantziako militanteen inguruan garatu da. Egungo Marokok agertoki berri bat bistartzen du emakumeentzat, non aurrerakuntza nabariak agertzen diren baldintza sozial, politiko, laboral eta ekonomikoetan. Orain, emakumea protagonisten rolak bereganatzen hasi da, eta fenomeno hori faktore erabakigarria da garapen-bidean dauden herrialdeak modernizatzeko; izan ere, beren historiaren zati handi batean, uko egin zioten erakundeak modernizatzeko hain ekarpen baliotsua egiteari.

Duela 50 urte, Marokoko ia emakume guztiak etxeoandreak edo esklaboak ziren. Ia denak analfabetoak ziren, eta beren etxeetatik irtetea debekatzen zitzairen, kasu bitxiak izan ezik. Tradizioa eta balio nagusiak pentsamendu superstizioso eta ilunaren forma guztien jatorria ziren. Ez zuten senarra aukeratzeko eskubiderik, gurasoek beren hautuak inposatzen zituzten eta seme-alabek, gizonezkoek zein emakumezkoek, obeditu egin behar zuten. Senar-emazteak tribuaren barruan sortzen ziren, sarritan lehengusuarekin, familia patriarkalaren hedadura zela eta, emaztea bere amaginarrebaren agintepean zegoen, eta horrek haren patua erabakitzen zuen.

Interesgarria da Marokoren egoerari eta haren balio-sistemari buruz hausnartzea; horretarako, herrialde baten modernizazio-maila neurtzeko funtsezkotzat jotzen diren bi dimentsioetan duen posizioa aztertzen da (Inglehart eta Welzel, 2005). Ardatz bertikalean, tradizionalismoak eta sekularizazioak osatzen duten dimentsioa jasotzen da, eta horizontalean, berriz, materialismoak eta postmaterialismoak osatzen duten ardatza. Honako 1. irudian ikus daitekeenez, Maroko «puntuazio baxuarekin» agertzen da bi dimentsioetan. Tradizionalismoak eta sekularizazioak $-1,7$ lortzen dute, eta materialismoak eta postmaterialismoak $-1,2$.



1. irudia. Herrialdeen modernizazio-maila, Inglehart eta Welzelen bi dimentsioiko planoan duten kokapenaren arabera.

Iturria: Inglehart eta Welzel (2005).

Datu horiek Maroko planoaren beheko ezker aldean kokatzen dute, hau da, modernitatearen eruditik urrunen dauden herrialdeen artean. Emakume marokoarraren lan- eta prestakuntza-partaidetzari buruzko azpidimentsioak bi dimentsio horiek adieraziko lituzke, baina materialismoa eta postmaterialismoa nabarmenduko lirake bereziki, Inglehartek eta Welzelek beren planteamenduetan nabarmendu dutenez. Zentzu horretan, ikusten da Marokon abian dagoela emakumeak modernitatera eta emantzipaziora irekitzeko prozesu bat, eta fenomeno horiek agerian geratzen dira enpleguaren eta prestakuntzaren arloko lorpen garrantzitsuekin. Horren haritik dator Nazio Batuen 2006ko Giza Garapenari buruzko Txostenaren laburpena (Nazio Batuak, 2006):

Marokoko emakumeak paper garrantzitsua izan du Marokoko giza potentzialaren bilakaeran. Giza garapenaren prozesua oso ahaztuta egon den garai baten ondoren, borroka luze baten bidez, gaur egun aho batez onartzen diren aurrerapenak egin ahal izan dira. Horren erakusgarri Familiaren Kodea eta Nazionaltasun Kodearen erreforma berria dira. Aurrerapen horiek esan nahi dute emakumeen mugimendu dinamiko, militante eta jarraitzaile baten etengabeko ekintzaren gailurra.


Marokoren modernizazioa abian da, emakumearen zeregin garrantzitsua tarteko. Inglehart eta Welzel (2005) autoreen bi dimentsioko planoari heltzen badiogu (1. irudia), lehenago esan dugun bezala, begien bistakoa da Maroko modernitateetik urrun dagoela aztertutako bi dimentsio nagusietan («tradizionalismoa eta sekularizazioa» eta «materialismoa eta postmaterialismoa»). Hala ere, urte hauetan emakumeen emantzipazioa bezalako fenomeno erabakigarri batean Marokok aurkeztutako aldaketa-frogek iradokitzen dute Maroko laster joango dela planoaren erdigunera, eta, beraz, marra diagonal bat marraztuko duela.

Jakub Marian hizkuntzalari eta matematikari txekiarrek Europako kontinenteko migrazio-mugimenduak bektoreekin irudikatzen dituen mapa bat sortu du (Marian, 2016). Mapa horretan ikusten denez (2. irudia), Marokotik migrazio gehienak zuzenean Espainiara eta Frantziara doaz, eta ia ez dago migrazio-mugimendurik gainerako herrialdeetara. Zehazki, NBEk argitaratutako 2017ko datuen arabera (Nazio Batuak, 2017), Marokok 2.898.721 etorkin ditu, edo Marokoko biztanleen % 8,32; horietatik % 32,47 Frantziara doaz, eta % 24,39 Espainiara.

Era berean, garrantzitsua da adieraztea gaur egun Espainiaren eta Marokoren arteko alde biko harremanek, gelditu beharrean, fruituak ematen jarraitzen dutela, bi herrialdeetako eragile publikoek zuzendutako lankidetzaren bidez. Egia esan, ez dago juridikoki loteslea den nazioarteko itun berririk, baina bai bilera eta foro ugari, non ministerioetako ordezkariak parte hartzen duten eta horrek puntu oso aberasgarri eta irekia ematen dio integrazio-prozesuari.

Ildo horretan, immigrazioari eta integrazioari buruz Rabaten 2016ko martxoaren 19an, 20an eta 21ean egin zen II. Foro Hispaniar-Marokoarra, atzerrian bizi diren Marokoko Erkidegoen Ministerio arduradunak eta Migrazioaren Gaiak antolatuta, Espainiako Immigrazio eta Migrazioaren Idazkaritza Nagusiarekin batera. Foro horren goiburua «elkarrekin bizitzen ikastea» izan zen, bi mugen arteko benetako integrazioa lortzeko beharra azpimarratzeko. Foroaren helburua bi herrialdeek

Espainiaren eta Marokoren arteko immigrazioaren eragin positiboa ahalik eta gehien indartzen duten ezagutzak eta esperientziak bateratzeko gune bat sortzea izan zen. Datuen arabera, bi herrialdeak egoera egokian daude immigrazioa sustatzeko, eta ez da inolaz ere arazotzat hartu behar. Gero eta espainiar gehiagok erabakitzen dute Marokon helmuga profesionala bilatzea, eta gaur egun marokozarrak Espainian bizi diren atzerritarren % 15,25 dira. Foro horrek sustatzen duen integrazioaren fenomenoak mugikortasuna eta kultura- eta erlijio-desberdintasunak murriztea erraztuko luke, eta hezkuntzaren esparruan jardungo luke ohiturak, baliok eta erlijio-praktikak normalizatzeko (Calvo, 2016).



erakundeen aurrean alegatzea, hala nola gaitzespena eta poligamia, aipatutakoen berezitasunak azpimarratuz eta erakunde horiek aitortzea planteatzen duen herrialdeko ordena publikoaren aurkako diskriminaziorik gertatzen den behatuz. Era berean, nazioarteko ordena publiko deritzon bat egitea posible den ikusi nahi da, nazioartean ordenamendu juridikoei aplika dakizkiekeen ordena publikoko gutxieneko printzipioak bermatzeko.

Hala, esparru orokor horretan, Europako herrialdeek atzerriko zuzenbidea ez aplikatzeko nazioarteko ordena publikoaren alegazioa beteko da. Alde horretatik, ordena publikoaren salbuespen hori herrialde islamiarren ordenamenduen gisako ordenamenduen aurrean nagusitasun juridikoaren alegazio gisa soilik erabiltzen den aztertuko da. Ez litzateke automatikoa izan behar defentsa-gabeziaren edo giza eskubideekiko errespeturik ezaren argudio tipikoak atzerriko zuzenbidearen desegokitasunean babesteko eta norberarena zuzenean aplikatzeko.

Jakina, Kode Zibilaren 12.3 artikuluan jasotzen da Espainiako ordenamendu juridikoan ordena publikoa errespetatzeko klausula, eta guztiz irmo ezartzen du atzerriko legea ez dela inola ere aplikatuko ordena publikoaren aurkako denean. Klausula hori ezarritako zentzuan interpretatu behar da, baina ordena publikoaren salbuespenaren aplikazio arinarekin. Egia esan, tradizio islamikoan oinarritutako zuzenbide marokoarrari erreparatzen badiogu, esan daiteke arau horietako askok, oro har, gizonen eta emakumeen arteko bereizkeriazko harremanak ezartzen eta arautzen dituztela, argi eta garbi konstituzioaren aurkakoak.

Hala ere, bat datoz María Dolores Cervilla (2003) eta Isabel Zurita (2003) irakasleak, eta ez dira arau guztiak diskriminatzaileak, ez eta tratu desberdina ezartzen duten arau guztiak ere. Horregatik, Konstituzioaren aurkakotzat jo behar dira, Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua urratzen dutelako; izan ere, konstituzio-kontraketasun hori ez dator tratu-desberdintasunetik, baizik eta desberdintasun hori justifikatzen duen arrazoi objektibo eta arrazoizkorik ez egotetik. Ildo horretan, Konstituzio Auzitegiak berak adierazi du alegatutako konstituzionaltasuna gero eta sotilagoa dela, eta teknikoki diskriminatzaileak diren jokabideak ahalbidetu ditzakeela.

3. Emakumearen papera Mudawana (Marokoko Familia Kodea) erreformaren aurrean

Artikulu honetan emakumeak Marokoko gizartean duen egoera aztertzen da, aldaketa sozialaren ikuspegitik, Marokoko Familia Kodearen erreformaren bidez; aipatutako Familia Kodea Mudawana izenez ezagutzen da. Testu hau garatu ahal izateko zenbait egilek egindako Marokoko Familia Kodearen itzulpenak erabili dira, hala nola Ruiz-Almodóvar (2005), De la Rosa (2006), Mailo (2005) eta Foblets eta Carlier (2005). Gizarte-aldaketa dimentsio anitzeko prozesutzat hartuta, aldagai soziodemografiko nagusiak kontrastatzen dira, eta emakumeen eskubideen aldeko gizarte-mobilizazioaren eta Familia Kodearen erreformaren ibilbidea berrikusten da. Egileek egiaztatu dute azken berrogeita hamar urteetan egindako aurrerapenak benetakoak direla, baina ez direla nahikoa. Are gehiago, emakumeek

espazio publikoan duten parte-hartze hasiberriak mendekotasun-eskemak maizegi errepikatzen jarraitzen duela erakusten duten zantzuak daude¹.

Gizarte-zientziek arreta handia jarri diote emakumeek mundu musulmanean duten egoerari. Interes hori mugimendu islamisten gorakadak, Irango iraultzak eta Afganistango Talibanen erregimenak berritu dute. Patriarkatuaren iraunkortasuna eta erlijioaren rola agertzen dira emakume musulmanaren errealitateari buruzko azterlanetan. Marokoko Familia Kodearen erreformari buruz hitz egin ondoren, orain emakumearen egoerari heldu behar zaio musulmanen testuinguruan.

Horretarako, Maroko agertoki egoki gisa aurkezten zaigu. Izan ere, maila politiko eta juridikoan zein sozialean, emakumearen egoera aldatzen ari den zantzuak daude. Eskolatzearen hedapenak, hezkuntza-sisteman jarraitzeak eta espazio publikoan, oro har, eta lan-merkatuan, bereziki, presentzia handiagoa izateak norabide hori erakusten dute. Era berean, emakumeen eskubideen defentsarako eta sustapenerako gizarte-erakundeak sendotzen ari dira Marokoko gizarte zibil hasiberriaren barruan, 2004an Familia Kodearen erreformak bultzatuta. Hala ere, zilegi da eraldaketa horien benetako irismenari buruz galdetzea, hau da, zer neurritan eboluzionatu du emakumeen posizioak Marokoko gizartean?

Emakumearen egoerari eragiten dioten dinamikak identifikatzeko, gizarte-aldaketa dimentsio anitzeko prozesua dela dioen hipotesitik abiatzen da. Soziologiaren gai nagusia aldaketa soziala bada ere, nozio horrek arazo izaten jarraitzen du. Testu honen esparruan, kontua ez da eztabaidatzea, eta, beraz, definizio hau baino ez da aipatzen: aldaketa sozialtzat har daiteke eragina duen denboran beha daitekeen edozein eraldaketa, antolamendu sozial baten funtzionamendua. Horrek berekin ekarri beharko luke gizartean dauden ordezkariak berrien eta horiei aurre egiteko behar diren aldaketen arteko koordinazioa².

4. Marokoko Familia Kodea, benetako aldaketaren berme?

Marokoko Familia Kodeak Marokoko musulmanen bizitza pribatua arautzen du eta zazpi liburutan banatutako 400 artikuluk osatzen dute³. Maliki Eskolak, nagusiki, zuzenbide islamiarren bi lan handi hartzen ditu erreferentziazat (Ourkia, 2016):

1. Ezkontza honako estatuetako familia-kodeetan arautzen da: Aljeria, Irak, Jordania, Kuwait, Libia, Maroko, Mauritania, Oman, Qatar, Siria, Sudan, Tunisia eta Yemen.

2. Familia Kodearen erreformak emakumeen kolektiboak bildu eta egituratu ditu 90eko hamarkadaz geroztik. Era berean, Mendebaldeko iritzi publikoei begira herrialdearen irudia hobetzeko beharrak eta 2003ko maiatzean Casablancan izandako atentatuen ondoren mugimendu islamistaren ahultasunak markatutako abagune politiko batek testu berriaren prestaketa bizkortuko dute. Azkenik, Mohamed VI.a erregeak 2003ko urrian aurkeztu zuen erreforma Parlamentuan. Erregeak, ia sektore politiko eta sozial guztien babesa lortzen du, sektore kontserbadoreen erresistentziak argudiaketa koranikoaren bidez garaituz eta mugimendu progresisten babesa lortuz, bere aldarrikapen askoren ustekabeko asebetetzeari esker.

3. Maliki Eskola, Malik ibn Anas imamak sortua (k. 713-k. 795).

1. *Al-Muwatta* liburua, Malik ibn Anas imamak idatzi zuen eta Muhammeden garaiko ohiturak eta erritualak biltzen ditu, islamaren jurisprudentziaren oinarria zehaztea ahalbidetzen duelarik.
2. *Al-Mudawanna* liburua, Malik ibn Anas imamak bere ikasle Abd ar-Rahman ibn al-Qasim al-Utaqi-ri emandako erantzunak jasotzen dituena. Kode hori 2004ko otsailaren 3ko 7003 Legearen bidez aldarrikatu zen⁴.

Hauek dira Familia Kode berriaren lorpen nagusiak:

1. Ezkontideen arteko berdintasun-printzipioa sartzea, familiaren baterako zuzendaritzan jasota (4. artikulua)⁵ eta elkarren arteko eskubideak eta betebeharrak ezartzea (51. artikulua)⁶. Ondorioz, desagertu egiten da emazteak senarrari men egiteko betebeharra, eta senarrari ez dio lan egiteko, bidaiatzeko eta abarretarako baimenik eskatu behar.
2. Adinez nagusi den emakumeak ezkontzeko orduan autonomia izatea, aitak edo senide gizonek tutoretza izateko duten betebeharra ezabatuz.
3. Ezkontzeko emakumearen gutxieneko adina 15 urtetik 18ra igotzea, gizonarenarekin parekatuz (19. artikulua)⁷.
4. Gaitzespenaren izaera aldatzea, senarraren aldebakarreko eskubidea izateari uzten diona, eta emazteari dibortzioa senarraren antzeko baldintzetan lortzea errazten dioten bide berriak irekitzea, hala nola bien arteko adostasunez banantzea (114. artikulua)⁸ edo desadostasunengatiko dibortzioa (100. artikulua.)⁹, non jada ez den beharrezkoa jasandako kaltea frogatzea.

4. 2004ko otsailaren 5eko 5184. Aldizkari Ofizialean argitaratua.

5. Honela dio 4. artikulua: «Ezkontza gizon eta emakume baten arteko lotura eta kohesiorako legezko kontratua da, modu iraunkorrean, eta haren helburua zintzotasuna, bertutea eta familia egonkor bat sortzea da, ezkontideen babesaren bidez, kode honetako xedapenen arabera».

6. 51. artikulua honako hau dio: «Ezkontideen arteko elkarrekiko eskubideak eta betebeharrak honako hauek dira: 1). Ezkontideen intimitatea, poligamiaren kasuan justizia eta berdintasuna, bien zintzotasuna eta besterekeriko fideltasuna dakarren legezko elkarbizitza, bertutearen, ohorearen babesaren eta ugaltzearen betebeharrarekin. 2) Bizikidetzaren ona, elkarrekiko errespetua, maitasuna eta ulermena, eta familiaren interesak zaintzea. 3) Emaztea, senarrarekin batera, etxeko lanak eta haurren lanak antolatzea eta zaintzea arduratzea. 4) Familiaren eta haurren gaien antolaketari eta jaiotzatasaren kontrolari buruzko erabakiak hartzeari buruz elkarri galdetzea. 5) Guraso eta ahaide biek tratua ona izatea, bata besteari ezkontzarako debekatuta dagoen mailan, eta haiek errespetatu, bisitatu eta behar bezala bisitatzeko. 6) Bien arteko oinordetza-eskubidea».

7. 19. artikulua honako hau dio: «Ezkontzeko gaitasuna hemezortzi eguzki-urte betetzean buruko gaitasuna duen gazteak eskuratzen du».

8.114. artikulua honako hau dio: «Ezkontideak ados jar daitezke ezkontza-harremanaren amaieraren hasierari buruz, kode honen xedapenekin bateraezinez ez diren eta haurren interesari kalterik egiten ez dieten baldintza edo baldintzekin. Akordio hori egiten bada, bi alderdiek edo horietako batek dibortzio-demanda aurkeztuko diote auzitegiari, legezatzeko baimena erantsita. Ahal den bitartean, auzitegiak adiskidetzeko ahalegina egingo du, eta, adiskidetzeko ezinezkoa bada, dibortzio-ziurtagiria eta horren legezatzeko baimenduko dira».

9.100. artikulua honako hau dio: «Kaltearen egitateak frogabide guztien bidez ezarriko dira, auzitegiak eztabaida-aretoan entzungo dituen lekuko ziuurtagiria barne. Emazteak ez baditu kalteak frogatzen eta dibortzio-demandan jarraitzen badu, desadostasunen prozedurara jo dezake».

5. Amak seme-alabak zaintzeko duen eskubidea aitortzea, nahiz eta amak ezkontzea edo bizilekua duen herri edo herrialdez aldatzea erabaki.
6. Ezkongai-aldian jaiotako seme-alaben seme-alabatasuna aitortzea.
7. Ezkontzak irauten duen bitartean eskuratutako ondasunak banatzeko aukera sartzea, betiere alde aurretik hori adosten bada.
8. Ezkontza goiztiarrari eustea, hau da, 18 urtetik beherako en ezkontzari, epailearen erabakiaren mende jarritako salbuespenezko neurri gisa.
9. Gaitzespenak irautea, nahiz eta nolabaiteko arauketaren eta epailearen erabakiaren mende egon, bai eta konpentsazio bidezko banantzeari eustea ere, non emakumeak kalte-ordaina ematen dion senarrari.
10. Jarauntsiarekin eta poligamiaren zaintzarekin zerikusia duten alderdietan aldaketarik ez, Koranean duen erregulazioa esplizitua delako. Azken hori, hala ere, muga zorrotzen mende geratzen da, eta azken auzialdian epailearen erabakiaren mende.

Aurrerapenak izan arren, kode berriak zenbait kontraesan ditu sexuen arteko berdintasun-printzipioarekin; besteak beste, honako hauek nabarmentzen dira: seme-alaben babes juridikoa aitari dagokio, eta amak bakarrik baliatu ahal izango du, baldin eta aita hiltzen bada, bertan ez badago edo aita egikaritzeko gai ez bada (231., 236. eta 237. artikulua)¹⁰.

Gainera, praktika juridikoan eta Marokoko legedian beste diskriminazio batzuk daude oraindik, gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna lortzea eragozten dutenak (Ortiz, 2014). Lehenik eta behin, nabarmendu behar da Konstituzioak ez duela onartzen bi sexuen arteko berdintasuna zuzenbide zibilaren edo gaitasun juridikoaren arloan.

Halaber, ez die lehenetarik ematen barne-arauaren gainetik berretsitako nazioarteko itunei, giza eskubideei eta emakumeen eskubideei dagokienez. Bigarrenik, Marokoko gobernuak emandako erreserbei eusten die. Hala, bada, azpimarratu behar da Marokok sinatu duela Emakumearen aurkako Diskriminazio Modu guztiak Ezabatzeako Konbentzioa (CEDAW ingelesezko siglak dira), baina erreserbekin, eta, batzuetan, nazioarteko erakundeek eskatu diete kentzeko.

Horrela, Giza Eskubideen Batzorde Nazionalak (GEBN, 2008) egindako txostenaren arabera, Marokok interpretazio-adierazpen bat egin zuen honako hauei buruz: 2. artikulua (emakumeen aurkako diskriminazioa barkatzea, bere forma guztietan, eta estatuek hura ezabatzeo duten konpromisoa, bitarteko egoki

10. 231. artikulua honako hau dio: «Legezko ordezkari izango du: –Aita adinez nagusia. –Ama adin nagusikoa, aita hiltzen denean edo gaitasuna galtzen duenean. –Aitak izendatutako testamentuko tutorea. –Amak izendatutako testamentuko tutorea».

236. artikulua honela dio: «Aita bere seme-alaben tutorea da legearen arabera, epai judizial bidez tutoretza kentzen ez zaion bitartean. Amak seme-alaben premiazko interesez arduratu beharko du aitari eragozpenen bat gertatuz gero».

237. artikulua honako hau dio: «Aitak testamentuko tutorea izendatu ahal izango du bere seme ezgaitua edo jaioko den semea, eta tutoretza hori ezeztatu ahal izango du. Testamentuzko tutoretza, aitaren heriotzaren egitate hutsagatik, epailearen mende jarriko da, egiaztatu eta berresteko».

eta atzerapenik gabe) eta 15. artikuluko 4. paragrafoa (giza eskubide berberak eta emakumeen eskubideak, askatasunez zirkulatzeko eskubidea eta egoitza aukeratzea), nahiz eta nazioarteko erakundeek, hala nola Giza Eskubideen Batzorde Nazionalak (GEBN), horiek kentzeko eskatu dioten (GEBN).

1993an emakumeen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzio hori Nazio Batuek 1979an onartu eta 187 herrialdek berretsi zuten; Espainiak 1984an berretsi eta 1984-04-21 ean BOEn argitaratu zuen. Haren Hautazko Protokoloak, Espainiak 2001ean berretsitakoak, aukera ematen die pertsona edo elkartei CEDAW Komiteari Konbentzioa urratzeagatiko salaketak aurkezteko, beren herrialdean babes judizial edo administratibo azkarra eta eraginkorra aurkitzen ez dutenean, eta Komiteari ofizioz ikerketa-prozedura bat irekitzeko konbentzioa larri edo sistematikoki urratzeagatik. Konbentzioak estatu alderdiei eskatzen die bereizkeriarik ez egiteko, eta 15. artikuluan adierazten du emakumearen gaitasun juridikoa mugatzen duen kontratu edo tresna oro «deuseztat» joko dela, eta, horrez gain, gizonak eta emakumeak gizartean eta familian duten ohiko eginkizuna aldatzeko eta diskriminazioa ezabatzeko neurriak hartzeko etengabe, baita ekintza positiboekin ere, 4. artikuluan «berdintasuna bizkortzera bideratutako aldi baterako neurri berezi» gisa definitzen direnak, eta neurri horiek bertan behera geratzeko direla aukera- eta tratu-berdintasunaren helburuak lortzen direnean. 1. artikulua arabera, diskriminazioa da «esparru politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta zibiletan edo beste edozein esparrutan sexuan oinarritutako bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro».

Era berean, aipagarriak dira beste kode batzuk, hala nola Marokoko lan-arloko kodea 65/99 Legea, lana egitea eta amatasuna bateragarri egitea xede duena, 2004ko maiatzaren 5ean justifikatua. Lege horren bidez, amatasunagatiko baimena hamalau astera luzatzen da, eta lanean emakumearen tratu-berdintasuna bultzatzeko neurriak ezartzen dira, hainbat ekintza jasota. Hala ere, kode berriak bere aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu etxeko zerbitzuan diharduten langileak eta artisau-sektore tradizionalako langileak. Ildo horretan, gogora ekarri behar da Etxeko Langileei buruzko LANEren 189. Hitzarmena, bereziki etxeko zerbitzuko emakumei eta neskei zuzendua, eta 201. Gomendioa, «Etxeko langileentzako lan duina», biak 2011ko ekainaren 16an onartuak, zeintzuen helburua etxeko langileen eta haien enplegatzaileen antolaketa erraztea baita; sentsibilizazioa eta sustapena; eta oinarritzko garapena.

Horiek dira Marokok sinatuta dituen tresna politikoak, baina egia da, Marokon, lege-hutsune bat dagoela lanean etxeko sektorean neskatoak babesteari dagokionez, eta horrek berekin dakarrela haiek baztertzea. Ildo horretan, lege-aurrerapenak urriak eta motelak dira; horren adibidetzat har daiteke Lanaren Kodearen 2004ko ekainaren 7ko erreforma, 12 urtetik 15era aldatu baita lan egiteko gutxieneko adina. Segmentu hori biztanleriari dagokionez zigortuena da; izan ere, Marokoko gobernuak orain dela gutxi arte, 2011ko ekainaren 16an, Etxeko Langileei buruzko LANEren 189. Hitzarmena onartu du, baina ez da berretsi. Hitzarmen hori bereziki zuzentzen zaie etxeko zerbitzuko emakumei eta neskei, eta 201. Gomendioa «etxeko langileentzako lan duina» da, eta etxeko langileen eta haien langileen antolaketa erraztea du helburu.

Aipatutakoari jarraituz, Marokoko Zigor Kodeak, 2003ko azaroaren 11ko (02-03) Legearen bidez¹¹ egindako erreformaren ondoren, nahiz eta duela gutxiko erreformak izan, diskriminazio-xedapenak mantentzen ditu¹².

Hori dela eta, ahalegin askoren ondoren, 2018ko irailaren 12an sartu zen indarrean Marokon emakumeen aurkako indarkeriari buruzko legea, 2013tik eztabaidatzen ari zena. 103/13 Legea, indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko mekanismoak arautzen dituena. Legeak lehen aldiz «jazarpen, eraso, sexu-esplotazio edo tratu txar mota batzuk» kriminalizatzen ditu. Kasu batzuetarako zigorrak gogortu ditu, eta indarkeriaren biktima diren emakumeei aurre egiteko «mekanismoak» aurreikusi ditu. Lege berriak etxeko indarkeria mota batzuk delitu gisa tratatzen ditu, prebentzio-neurriak ezartzen ditu eta babes berriak ematen dizkie biktimei. Baina biktimak babes-prozedura penalak epaitzea eskatzen du, gutxik egin dezaketena. Zentzu horretan, eta oztopo praktikoa bezala azpimarratu behar da, legeak ez die betebeharririk esleitzen poliziarri, fiskalei eta instrukzio-epailei etxeko indarkeria kasuetan, eta ez du funtsik ematen indarkeriaren biktima diren emakumeak hartzen dituzten babeslekuetarako. Horretarako, emakumearen aurkako indarkeriaren eta haren babesaren aurkako borrokan inplikaturik daudenen arteko koordinazio-mekanismoen instituzionalizazioa indartzeko, indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko batzorde nazionala eratu zen 2019ko irailean, 103/2013 Legean ezarritakoa aplikatuz.

Aipatutako legearen aurrean, 2019ko otsaila eta uztaila bitartean, Haut Comissariat au Planak emakumeen aurkako indarkeriaren prebalentziari buruzko bigarren inkesta nazionala egin zuen eta lurralde nazional osoa hartu zuen barnean: 12.000 neska eta emakume eta 15-74 urteko 3.000 mutil eta gizon. Inkestak Marokoko emakumeen aurkako indarkeriaren joera nagusiak eta bilakaera erakusten ditu, baita gizarteak indarkeriari buruz dituen pertzepzioak ere (Haut Comissariat au Plan, 2018).

Inkesta nazional horren emaitzek ondorioztatzen dutena zera da, nahiz eta emakumeen % 62 jakitun izan tratu txarren aurrean babesa eskaintzeko instituzio publikoak existitzen direla, ez dutela benetako informazio praktikorik babesa ematen dieten estatu-egiturei buruz eta, horregatik, ez direla benetan babestuta sentitzen erakunde publikoen aldetik.

11. Marokoko Erresumako Aldizkari Ofiziala, 2004ko urtarrilaren 5ekoa

12. Giza eskubideen aldeko erakundeek, batez ere Amnistia Internazionalak (2015), zalantzan jartzen duten Marokoko Zigor Kodearen xedapenetako bat 486. artikulua da. «Moralaren aurka»ko delituei buruzko atalean, bortxaketa «gizon batek emakume batekin sexu-harremanak dituen ekintza» gisa definitzen du, eta bost eta 10 urte arteko espetxe-zigorra aurreikusten du. Bortxaketaren biktima 18 urtetik beherakoa bada, ezintasunen bat badu edo haurdun badago, 10 eta 20 urte arteko kartzela-zigorra ezarriko diote. Zigorrak biktimaren egoera zibila eta birjina den ala ez kontuan hartuta ere aldatzen dira: 488. artikulua zigor gogorragoak ezartzen ditu bortxaketaren eta «lotsaren aurkako atentatu»aren ondorioz emakumeak birjintasuna galtzen badu. Bortxaketaren kasuan, zigorra 10 eta 20 urte artekoa da, eta bost eta 10 urte artekoa emakumeak birjintasuna galtzen ez badu. Ekintzaileen ustez, bortxaketaren definizioa aldatu behar da, generoari dagokionez neutrala izan dadin eta indarkeria fisikoa eskatzen ez duten beste baldintza hertsatzaile batzuk kontuan har daitezkeen. Senar-emazteen bortxaketa ere delitu espezifiko gisa aitortu behar da. «Bortxaketa "moralaren" aurkako delituen atalean jorratzeak moralitasunean eta egoera zibilean jartzen du indarra, eta ez biktimaren osotasunaren aurkako erasoan», adierazi du Hassiba Hadj Sahraoui Amnistia Internazionalaren Ekialde Ertainerako eta Afrika Iparralderako Eskualde Programaren zuzendariak.

5. Familia Kodearen aurreko kanpo-erresistentziak

Bestalde, Familia Kode berriaren aplikazioak oztopo eta erresistentzia askori egin behar die aurre. Nabarmentzekoak dira, besteak beste:

- Justizia-administrazioaren esparruan, epaileen jarrera kontserbadorea nabarmentzen da. Honako bi adibideek kontserbadurismo hori ilustratzen dute: Lehenengo adibidea, 15 eta 18 urte bitarteko adingabe batekin garaiz ezkontzeko eskaerei buruzkoa da. Eskaera horiek 2004ko otsailetik abendura bitarteko kasuen % 96an onartu ziren, edo, nahiago bada, 3.730 demandatik 127 atzera bota ziren. Bigarren adibidea, 2004ko hamaika hila-bete horietan Rabat eta Marrakexeko auzitegietan % 85ean onartu ziren poligamia-baimenak aztertzeari dagokio (Ministerio de Justicia y Libertades, 2012).
- Erreforma horren garrantzi soziala oso erlatibo da; izan ere, Haut Commissariat au Planak (2018: 6, 7) egindako inkesta baten arabera, marokoarren % 35ek baino gehiagok ez dute ezagutzen Familia Kode berria, eta ehuneko hori % 45era iristen da landatarren kasuan.

Gogoeta horiek Marokoko emakumeei eragiten dieten aldaketen benetako irismenaren, emakumeen eskubideen defentsarako mugimenduaren benetako eraginaren eta azken urteotan egindako erreforma juridiko eta politikoen gaia planteatzen dute. Bestela esanda, zer neurritan hitz egin daiteke aldaketaz oraindik ere praktika juridikoetan eta Marokoko legedian gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna lortzea eragozten duten beste diskriminazio batzuk daudenean?

Emakumeak gizarte-bizitzako hainbat esparrutan duen eginkizunaren inguruan, zeintzuk diren balioak eta ikusmoldeak egiaztatzea beharrezkoa da. Horretarako, zenbait iritzi-datu aurkezten dira, garrantzitsutzat jotzen ditugun hezkuntza, familia, bizitza profesionala eta espazio publikoa bezalako gaietara buruz. Haut Commissariat au Planak jasotako datuekin jarraituz (2018:7,8), hezkuntzaren esparruan, gizonen % 58,3k eta emakumeen % 42k uste dute unibertsitate-ikasketak garrantzitsuagoak direla mutilentzat neskentzat baino. Ezkontzari begira, % 23k baino ez dute begi onez ikusten emakumea tutore juridiko baten beharrik gabe ezkontzeko aukera. Familiari dagokionez, galdetutakoen % 75,7k uste dute emakume batek seme-alabak izan behar dituela errealizatuta sentitzeko. Hala ere, familia murriztua, 2 edo 3 seme-alaba dituen, eredu egokiena da biztanleen % 66,9rentzat eta, bereziki, gazteen % 76,9rentzat. Era berean, biztanleen erdiek (% 55,8k) uste dute posible dela bizitza profesionala eta familiakoa uztartzea, eta gehiengo handi batek (% 69k) uste du gizonak eta emakumeak etxeko diru-sarreretan lagundu behar dutela. Hala ere, horrek ez du esan nahi inkestari erantzun dioten gehienek (% 86,9k) defendatzen dutenik gizonak nahiago duela langabezia egotea lan egitea baino.

Azkenik, biztanleen % 60,6k diote gizonak emakumeak baino lider politiko hobeak direla. Baieztapen hori % 69,8ra iritsi da gizonen artean, eta % 51,7ra emakumeen artean (El Aoufi eta Bensaid, 2005).

Marokoko Familia Kodearen erreforma berria gorabehera, eta argi eta garbi emakumearen eskubideak babesten eta bermatzen dituen espiritua izan arren, lege-hutsune larriak ditu. Zentzu horretan, Mudawana berriak garrantzi handia izan du modernizazioan eta demokratizazioan murgiltzen saiatzen ari den gizarte kontserbadore honetan; baina emakumearentzat bizi-baldintza duinak lortzeko, haren eskubideak defendatzeko eta sexu-berdintasunaren printzipioa gizartearen garapenerako funtsezko oinarri gisa ezartzeko asmoa zuten erreforma guztiak gorabehera, kode horrek lege-hutsune asko ditu oraindik ere, erreformaren eragin-kortasuna agerian uzten dutenak. Esaterako, kode horren arabera, ezkontzeko legezko gutxieneko adina hemezortzi urtekoa da bi sexuentzat. Hala ere, ezkontza goiztiarra fenomeno arrunta da oraindik, eta epaileek nolabaiteko permisibitatearekin baimentzeaz gain, Marokoko gizartean oso errotuta dagoen tradizio batean oinarritzen da. Tradizio hori *al-fatiha* ezkontza da, non gizon eta emakume baten ezkontza-promeserako Al-Fatiha errezitatzen den, hau da, Koranak banatutako lehenengo sura edo kapitulua. Tradizio horrek sustrai sakonak ditu, batez ere landa-eremuetan.

6. Emakume marokoarren tratu txarren jaraunspena

Emakume marokoa, oro har, tratu txarrak jasateko larritasunean bizi izan da beti, fisikoki eta psikologikoki, eta kontraesana jasaten du malikiar eskolaren xedapenen (gizonak bere emaztea hez dezake, senarraren aginduak betetzera eta erlijioak pribilegiatutako familiaburu gisa dituen nahiak betetzera behartzen baitu) eta Marokoko gizarteak izan duen bilakaeraren artean, bai maila sozialean bai legegilean, erreformetan ikus daitekeen bezala (Diago, 2004). Mudawana izeneko Familia Kodearen erreforma berriek aukera ematen diote emakumeari aurreko kodeak, 1993an erreformatuak, ukatzen zizkion zenbait eskubide eta askatasunez gozatzeko, baina ez normaltasun osoz. Emakumeek eskubide horiek baliatzea bereziki zaila da, praktikan senarrekin gatazkan sartzea baitakar, ez baitituzte erreforma horiek onartzen, ezta irekiera hori ere. Bi sexuen arteko eskubide-berdintasunak esan nahi du gizon marokoa zituen pribilegioak galtzea, etxeko eta familiako arazoak kudeatzeko erantzukizun partekatua izatea, senarrak familiaburu izateari uztea, emakumeak senarrari men egiteko betebeharra indargabetzea eta elkarrekiko errespetuagatik ordezkatzeta. Horren guztiaren ondorioz, senarrak boterea galdu du emakumearengan, eta areagotu egin da tratu txarrak jasan dituzten emakumeen, dibortzioen eta gizarte-bazterketako arriskuan dauden haurren kopurua (Klevens, 2007).

Bestalde, aipatu behar da Marokon landa-eremuko emakumeei tratu txar handiagoa ematen zaiela hirietan bizi diren emakumeei baino; hainbat faktorek baldintzatutako bi indarkeria mota dira (Desrués eta Moreno, 2009). Landa-eremuan, emakumeak mantentzen ditu senarra eta familia, etxean eta etxetik kanpo lanean, eta, ondorioz, kulturalki, fisikoki, psikologikoki eta sexualki menderatutako gizakia da. Indarkeria bikoitza jasaten du etengabe, eta, gainera, ia kasuen % 100ean analfabetoa denez, ez du ahotsik eta ez ditu bere eskubideak ezagutzen. Hala ere, ia inork ez du hitz egiten landa-eremuko emakumeek jasaten duten indarkeriaz: emakumeek, lotsagatik edo beldurragatik, ez dute onartzen indarkeria horren biktima

direnik, eta gizarteak egoera normaltzat hartzen du, batez ere landa-eremuetan bertan (Pérez, 2006). Landa-eremuetako emakumeek, oro har, ez dute ikasketarik, ez lanbiderik, ezin dute independenteak izatea ahalbidetzen dien lanik egin, eta, horregatik, gizonen borondatearen mende daude. Sarritan, emakumeak tratu txarrak jasaten ditu bere seme-alaben onerako sakrifizio gisa; izan ere, dibortziatua den eta seme-alabak dituen emakumeak oso aukera gutxi ditu bigarrenez ezkontzeko, eta pobrezian geratzen da (Ministerio de Justicia y Libertades, 2012).

Era berean, emakume marokorrek bere herrialdeko justizia-auzitegien ibilbide judizial zailera jo du laguntza judiziala eskatzeko, tratu txarren biktima izanez gero, eta salaketaren errealitatea frogatu ahal izan du. Marokoko Prozedura Penalaren Kodeak (MPPK)¹³ hartutako froga-printzipioa legezko lorpena den arren, arlo penalean aplikatzea filosofia, egitura eta xedapen batzuen mende dago. Ez diote tratu egokirik ematen emakumearen aurkako indarkeriari, eta, ondorioz, batzuetan honako arazo hauek agertzen dira frogan:

- A. Batzuetan, frogabideak baztertzen dira, hala nola mediku-ziurtagiriak edo erradiografiak, kaltearen eta kaltegilearen arteko kausalitate-erlazioa egiaztatzea falta delako¹⁴.
- B. Epaitegiak salatuak polizia judizialaren aurrean egindako deklarazioetan oinarritzen dira. Deklarazio horiek atestatu batean jasota daude, eta atestatu hori froga erabakigarria da absoluzio-epaia emateko, batez ere salatuak egitateak ukatzen dituen kasuetan eta salatuaren ukapenaren aurkako froga sendorik ez dagoela gaineratzen denean.
- C. Epaileentzat hierarkia bat dago froga motetan. Gehienetan, epaileak bere ustea eratzten du froga indartsuetan oinarrituta, hala nola lekukoek deklarazioan, jakinik emakumeen aurkako indarkeria horren ezaugarria dela leku itxietan egitea, hala nola ezkontideen egoitzan edo leku isolatuetan. Emakumeen aurkako indarkeriaren % 96 etxean egiten da, eta indarkeria horren % 4 etxetik kanpo: biktimen % 83 ezkontutako emakumeak dira, eta % 17 dibortziatuak (El Filali, 2005-2006).

Froga libreki hautemateko araua interpretatzeak eta aplikatzeak benetako diskriminazioa eragiten duela ondoriozta daiteke, kontuan hartu gabe emakumearen aurka egindako indarkeriaren berezitasunak, haren izaera eta espazioa, azken batean, zaila baita frogatzea. Hau da, froga hautemateko askatasuna frogaren muga bihurtzen da, eta, ondorioz, erasotzaileak zigorra saihestu egiten du.

Nahiz eta, aipatu dugunez, tratu txarreko legedia indarrean den eta gizarte zibila eta emakumea babesten duten elkarte feministak ahaleginak egiten ari diren, asko falta da gizarteak kontzientziatzeko biztanleriaren erdiari egindako tratu txarren ondorio kaltegarriari buruz. Hau esanda eta, zalantzarik gabe, egiteko asko falta den arren gaurko Marokoko genero-indarkeriaren gai arantzatsuan, gaiak bizitza

13. MPPK 288. artikulua: «Legeak beste zerbait xedatzen duen kasuetan izan ezik, arau-haustekak froga mota guztien bidez egiazta daitezke, eta epaileak bere uste sendoaren arabera erabakitzen du».

14. MPPK 291. artikulua: «Polizia judizialak eta jendarmeriako militarrek delituak eta urraketak egiaztatzeko idatzitako hitzezko atestatuek eta txostenek fede ematen dute, aurkako frogarik ezean».

publikoaren eta komunikabideen eszena okupatzea aurrerapauso bat da berez. Mendebaldeko mundura irekitzen saiatzen gara, emakumeen eskubideen urraketa agerian utziz.

Orain arte egin diren ahalegin guztiek ez dute gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortu. Emakumearen diskriminazioa errealitate bat da oraindik ere, argi eta garbi islatzen dena genero-indarkeria zigortuko duen lege-esparru baten gabezia, soldata-diskriminazioan, ordaindu gabeko emakumeen jardueretan, langabezia-mailen diferentzian, beti handiagoa emakumeen artean, eta emakume askok ez dutela osasun-laguntzarik jasotzen lanpostua izan arren.

2011n erreformatutako Marokoko Konstituzio nazionalak emakumeen berdintasuna bermatzen du, hau da, hitzaurrean diskriminazio mota guztiak ezabatzeko eta horiei aurre egiteko betebeharrak ezartzen da, generoagatiko diskriminazioa barne (Jeddi, 2015). Xedapen horiek gorabehera, emakumearen aurkako diskriminazioagatiko urraketa ugari salatzen dira, baita indarreko legediaren mailan ere, eta diskriminazio-arauak aldatzeko uzkurtasuna. Adierazitako zentzuan, Giza Eskubideen Batzorde Nazionalak ondorioztatzen du Konstituzioan atzerapenak agerian daudela parekotasunerako eta diskriminazio mota guztien aurkako borrokarako agintaritzak ezartzean. Horretan Marokoko Giza Eskubideen Batzorde Nazionalak bermatzen du Marokoko Konstituzioaren helburuak zaintzea, berdintasuna eta parekotasuna lortzeko xedez. Esan daiteke Familia Kode berriarekin Marokok asko egin duela aurrera emakumeen eskubideen sustapenean, nahiz eta lan asko falta den onartutako erreformak aplikatzeko eta kode berriak dituen lege-hutsuneak betetzeko, adibidez:

1. Analfabetismoa desagerraraztea, batez ere landa-eremuko emakumeen artean.
2. Zigor Kodea erreformatzea, tratu txarren egileak jazarri ahal izateko.
3. Diskriminazio mota guztien aurka borrokatzea eta zigortzea.
4. Emakumeek ordainsari handiagoa duten lanpostuak eskura ditzaten sustatzea eta erraztea.
5. Emakumeei osasun-arreta eta oinarrizko zerbitzuak (ura, elektrizitatea, hezkuntza eta kredituak) eskura ditzaten erraztea.
6. Emakumeak bizitza publikoan eta politikoan duen parte-hartzea sustatzea eta gehiago aintzat hartzea.
7. Bortxatzaileak zigortetik salbuesten dituen legea indargabetzea, baldin eta biktimekin ezkontzea onartzen badute, batez ere biktimak adingabeak badira.

Izan ere, independentziaz geroztik egindako aurrerapenak gorabehera, Marokoko emakumearen egoera urrun dago berdintasunezko hartzetik. Horrela, desberdintasunaren ikuspuntutik aztertu beharreko zenbait puntu ikusten dira:

1. Eskolatzeko orokortzeko bidean dago, baina oraindik ez da osatu, batez ere landa-eremuko emakumeen kasuan.

2. Ezkontzeko adina atzeratu egin da eta familiaren tamaina murriztu, baina emakumearen ugaltze-rola oraindik ere oso baloratuta dago.
3. Emakumea lan-merkatuan sartu da, baina desparekotasun-baldintzetan eta aurkako testuinguru sozioekonomiko batean sartu da, eta horri Marokoko gizarteak emakumeen enpleguari ematen dion balorazio eskasa gehitu behar zaio.

Familia Kodearen erreforma mundu arabiarreko legedi aurreratuenetako bat da, baina biztanleriaren zati handi batek ez daki existitzen denik. Lehen aipatutakoaren arabera, 2004. urteko Familia Kodeak emakumearen eskubideak hobetu ditu dibortzioari eta seme-alaben zaintzari dagokienez, baina oraindik ere diskriminatzen ditu emakumeak jarauntsiari eta dibortzioa lortzeko prozedurei dagokienez. Kode berak 15 urtetik 18ra igo zuen ezkontzeko adina, baina, praktikan, epaileek adin horretatik behera ezkontzen uzten diete neskei.

Elkartasunaren, Emakumearen, Familiaren eta Gizarte Garapenaren Ministerioa sortu zen. Ministerio horrek politika publikoak ezartzen ditu adingabeak babesteko, eta urraketen biktimei laguntzeko zentroak ezartzen ditu. Horrez gain, adingabeak babesten jarraitzeko eta hurrak ustiatzeko modu guztiak ezabatzeko eta hezkuntzarako sarbidea sustatzeko lanak egiten ditu (USDOL, 2016).

Lan-giroan gertatzen diren sexu-abusuen kasuak egilea nagusi bat denean bakarrik zigortzen dira, eta zigorra bi urteko espetxealditik hasi eta 500 eta 5.000 dolar arteko fidantzaraino doa, baina praktikan oso biktima gutxi salatzen dituzte enplegatzaileak, beren lanpostuak galtzeko beldur direlako. Gobernuak 36 sexu-abusu kasu baino ez zituen aitortu 2015ean, eta erakunde zibil askoren arabera, hori ez da benetako kopurua, salaketen kopurua hain txikia delako (USDOL, 2016). Giza Eskubideen Batzordeak, 2016an, kezka adierazi zuen honako hau dela eta, nahiz eta duela gutxi lege-aurrerapenak egin diren: a) emakumearen aurkako indarkeriaren prebalentzia; b) indarkeria-ekintzen egileen salaketen eta epaitzeen ehuneko txikia, batez ere babes-neurririk eta harrera-egiturarik ez dagoelako, eta bortxaketa bat salatzen duten biktimek epaituak izateko arriskua dutelako, helduen arteko ezkontzaz kanpoko sexu-harremanak delitu gisa tipifikatzeagatik; c) xedapen penalaren irismen mugatua, sexu-diskriminazioa agertuz; eta d) egiten ari diren lege-erreformek zenbait xedapen diskriminatzaile mantentzea, hala nola «ohore-delitu»-en kasuetan inguruabar aringarriak aurreikustea (3, 6, 7 eta 17) (NBE, 2016).

Eta horren aurrean Giza Eskubide Batzordeak Marokori honakoa eskatu zion (Almendros, 2010): «a) bere legeria nazionala azkar zuzentzea, emakumeei sexu-indarkeriaren eta -jazarpenaren aurkako babes egokia bermatzeko; b) indarkeriagatiko salaketak aurkeztea erraztea, emakumearen aurkako indarkeria-kasuak sakon ikertzen direla, egileak epaituak eta kondenatuak direla eta biktimek baliabide erabilgarriak eskura dituztela eta ezkontzaz kanpoko sexu-harremanak izateagatik epaituak ez direla ziurtatuz; eta c) arreta juridikoa, medikoa eta psikologikoa bermatzea» (Almendros, 2010) eta etxeko eta sexu-indarkeriaren biktimei harrera-egiturak eta arreta-mekanismoen zerbitzu egokiak eskaintzea.

7. Ondorioak

Kultura-aniztasunak beharrezkoa den erantzun juridiko bat eskatzen du ezinbestean. Zentzu horretan, kontuan izan behar da harreman juridiko pribatuen nazioartekotze mailakatuak nazioarteko zuzenbide pribatuen kasuak areagotu dituela. Nazioarteko familia-zuzenbidearen esparruan, orain arte kontuan hartu ez diren egoera berriak sortu dira ordenamendu juridikoetan (gaitzespena, poligamia, kafala¹⁵), eta horiei erantzun juridikoa eman behar zaie.

Gizarte multikulturala ikusita, eskubideen, askatasun publikoen eta familia-estatusaren zirkulazio handiagoa gertatu da, baina areagotu egin dira, halaber, pertsona horiek dituzten zailtasun praktikoak, estatuak ukatu egiten dietelako atzerrian eratutako egoera aitortzea. Zirkulazio-askatasuna erabat baliatzeak eskubide, askatasun publiko eta estatus pertsonal eta familiarren zirkulazioa dakar. Horregatik, aitortpena ukatzen duten estatuak egoteak segurtasun juridiko falta handia sortzen du.

Marokon abian da emakumeak modernitatera eta emantzipaziora irekitzeko prozesu bat, eta fenomeno horiek agerian geratzen dira enpleguaren eta prestakuntzaren arloko lorpen garrantzitsuekin. Bi elementu horiek emakumei rol sozial berriak gauzatzen laguntzen diete, eta, pixkanaka-pixkanaka, emakumeak etxeko lanei eta familiarren zerbitzuari bakarrik atxikitzea gainditzen ari da.

Nolanahi ere, aldaketaren protagonistak erresistentzia kultural handia jasaten ari dira, eta hori areagotu egiten da ordaindutako lanaren munduan, Marokoko gizarteak gizonari esleitutako eremuan. Nahiz eta emakumeak zailtasunak izan dituen bere parte-hartze laborala, sozial eta politikoa sendotzeko, aldaketaren ondorioak oso nabariak dira eta Marokoko emakumeak paper garrantzitsua izan du Maroko agertoki berriaren bilakaeran.

Aipatutako Familia Kodearen modernotasun hasiberria gorabehera, testu arauemailearen edukia aplikatzea askotan zaila da tradizio islamiarrak eremu judizialean duen garrantziagatik. Horri gehitu behar zaio esparru juridikoak, Espainiakoak zein Europakoak, zailtasunak dituela ebazpen islamikoak onartzeko, hala nola gaitzespen-egintza edo poligamia, eta nazioarteko ordena publikoak behin eta berriz alegatzen duela aitortpen judiziala saihesteko eta atzerriko legea ez aplikatzeko.

Azaldutako guztiagatik, esan daiteke emakumeen errealitatea oso urrun dagoela giza eta emakumeen eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenetan ezarritako estandarretatik. Badakigu eta argi daukagu ezin direla bat-batean milaka urte iraun duten estereotipoak aldatu; hori ez da batere lan erraza, kontuan izanik batzuetan faktore ekonomiko, sozial eta erlijiosoak nahasten direla. Dударik gabe, ez da erraza gobernatzen duten eredu patriarkalak aldatzea, kontuan izanik eragin hori arlo desberdinetan islatzen dela: politikoa, ideologikoa, familiarrean eta abar. Baina ez ahalegintzeak esan nahiko luke dagoen agertokia onartzen dugula eta ez dugula nahi aldatzerik, egoera gero eta latzagoa bihurtuz.

15. Guraso biologikoak ez diren beste pertsona batek haur bat legez hartzea.

Hala, Marokoko Familia Kodeak sartu zituen emakumeen eskubideen arloko erreformek hainbat oztopo izan zituzten, hala nola estereotipo sexistak eta gizarte-egituren hauskortasuna, eta horiek guztiak aplikatzea lan zaila izan da. Marokon dauden estereotipo sexistak eta gizarte-egituren hauskortasunak eragin dute emakumeak bizi duen egoera eta hori dela eta, gero eta emakume gehiago dira migrazio-fluxuen protagonistak. Horiek senarraren migrazio-proiektuarekin bat egitetik, duela ez asko arte ohikoa izan zen bezala, haren funtsezko pieza izatera igaro dira. Horregatik bihurtu dira bektore ekonomiko eta sozial garrantzitsuena migrazio-fluxuetan.

Badakigu gaia oso konplexua dela eta ez dugula testu honen bitartez ebatziko. Gure helburua xumea da: umiltasunetik, gogoeta demokratiko eta ireki bat mahai gainean ezartzea eta argi izpi baten bilaketan denok murgilaraztea.

8. Bibliografia

- Aldecoa Luzarraga, F. (2000): *El sistema político internacional ante la globalización. Luces y Sombras de la globalización*, Universidad Pontificia de Comillas, Madril.
- Almendros, M.A. (2010): «La mujer extranjera trabajadora víctima de violencia de género», in Zenbaiten Artean, J.L. Monereo (zuz.), *Protección jurídico social de los trabajadores extranjeros*, Comares, Granada, 310-316.
- Amnistia Internacional (2015): *Marruecos: Reforma jurídica sin precedentes, que debe hacer valer los derechos humanos*, 2015eko apirilaren 17a, <<https://amnistia.org.ar/wpcontent/uploads/delightfuldownloads/2016/08/MDE2914382015SPANISH.pdf>>.
- Calvo Mariscal, L. (2016): «Análisis de los Tratados, Acuerdos no normativos y Comunicados conjuntos hispano-marroquíes (2013-2016)», *Revista Paix et sécurité Internationales*, 4, 377-410.
- Cervilla Garzón, M.D. (2003): «Las consecuencias económicas de la crisis de la pareja: la pensión alimenticia y la atribución del uso de la vivienda familiar», in F. Fuentes Rodríguez (koor.), *Mujer, Familia y Derecho*, Cádiz, 17-41.
- Desrues, T. eta Moreno Nieto, J. (2009): «Representaciones, expectativas y estrategias vitales de mujeres jóvenes rurales en Marruecos», *Revista de Estudios Internacionales Mediterráneos*, 7, 45-46.
- Diago, M.P. (2004): «Repercusiones de la nueva “Mudawwana” en la inmigración marroquí», in Angeles Vicente (ed.), *Musulmanes en el Aragón del siglo XXI*, IEIOP, Zaragoza, 141-161.
- El Aoufi, N. eta Bensaid, M (2005): *Chômage et employabilité des jeunes au Maroc*, BIT, Rabat.
- El Filali Alach, K. (2005-2006): *La violence envers la femme au Maroc quelle protection, la violence conjugale comme exemple, mémoire de DESA*, Université Mohamed ben Abdellah, Faculté de droit, Fés.
- Esteban de la Rosa, G. (2007): *La nueva Mudawwana marroquí. Entre tradición y modernidad (Traducción comentada del Código de Familia de 2004)*, Junta de Andalucía. Consejería de Empleo, Dirección General de Coordinación de Políticas Migratorias, Granada.
- Foblets, M.C. eta Carlier, J.I. (2005): *Le Code Marocain de la Famille*, Ed. Bruylant, Brusela.

- Giza Eskubideen Batzorde Nazionala (2008): *Observaciones finales del Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer*, <<http://docstore.ohchr.org>> (Kontsulta: 2020-10-29).
- Haut Commisariat au Plan (2018): *Les indicateurs sociaux au Maroc 2018*, Direction de la Statistique, Rabat.
- Inglehart, R. eta Welzel, C. (2005): *Modernization, Cultural Change and Democracy*, Cambridge University Press, New York.
- Jeddi, D. (2015): «La violencia conyugal en el código penal de Marruecos», *Revista de Derecho UNED*, 16, 1.007-1.033
- Klevens J. (2007): «An Overview of intimate Partner Violence Among Latinos, Violence Against Women», *Sage Journals*, 13, 418-420.
- Maíllo, F. (2005): *Diccionario de Derecho islámico*, Ed. TREA, Gijón.
- Marian Jakub (2016): *Countries of origin and destination of currently living migrants*, <<https://jakubmarian.com/immigration-in-europe-map-of-the-percentage-and-country-of-origin-of-immigrants>> (Kontsulta: 2020-10-29).
- Ministerio de Justicia y Libertades (2012): «La justicia Penal en Marruecos, números y datos», *Revista de Asuntos Penales*, 2, 281-282
- Nazio Batuak (2006): *Informe sobre el desarrollo humano*, <https://www1.undp.org/content/undp/es/home/librarypage/corporate/undp_in_action_2006.html> (Kontsulta: 2020-10-29).
- Nazio Batuak (2017): *International migrant stock*, <<https://www.un.org/en/development/desa/population/migration/data/estimates2/estimates19.asp>>.
- Nazio Batuak (2016): *Informe sobre la eliminación de la discriminación sobre la mujer*, <https://tbinternet.ohchr.org/_layouts/15/treatybodyexternal/Download.aspx?symbolno=CCPR/C/MAR/CO/6&Lang=Sp>.
- Ortiz Vidal, M.D. (2014): «El repudio en el Código de Familia de Marruecos y la aplicación del Derecho Marroquí en la UE», *Cuadernos de derecho transnacional*, 2, 201-244.
- Ourkia, A. (2016): «Las fuentes del Derecho Maleki y su influencia en el Código de Familia de Marruecos», in G. Esteban de la Rosa eta J.A. Menor Toribiok (koor.), *Estudios e Informes sobre la inmigración extranjera en la provincia de Jaén: 2009-2011*, Comares, Granada, 340-352.
- Pérez Beltrán, C. (2006): *Mujeres marroquíes ante la reforma de la Mudawwana: cambio social y referente cultural. Sociedad civil, derechos humanos y democracia en Marruecos*, Universidad de Granada, Granada.
- Roig, M. (1999): «La mujer y el poder», *Rojo y Negro*, 109.
- Ruiz-Almodóvar, C (2005): *El Derecho privada en los países árabe: Código de Estatuto Personal*, Universidad de Granada eta Fundación Euroárabe de Altos Estudios, Granada.
- USDOL – US Department of Labor (2017): *2016 Findings on the Worst Forms of Child Labor, Morocco*, 2017ko otsailaren 30a, 5. or. Horri buruz: <https://www.ecoi.net/en/file/local/1418001/5734_1510842560_2016morocco.pdf>.
- USDOS – US Department of State (2015): *Country Report on Human Rights Practices 2016 Morocco*, 2015eko martxoaren 3a, 10. or. Horri buruz: <<https://www.ecoi.net/en/document/1395047.html>>.
- Zurita Martín, I. (2003): *La privación de la patria potestad por sentencia dictada en causa criminal*, AC, Carriodiz, 3, 865-883.

